

**Ebazpena: R039/2024**

**Espedientea: E162/2023**

Vitoria-Gasteiz, 2024ko irailaren 25a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honakoek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Eta honako hau erabaki dute:

## **ERABAKIA**

C.A.T.-ren jaraunsleek (aurrerantzean, CATJ) Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) eta Asturiasko Printzerriaren aurrean planteatutako gatazka negatiboari buruz, zeinaren helburua baita aipatutako CATJen oinordetzen gaineko zerga (aurrerantzean, OGZ) ordainarazteko eskumena zehaztea. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 162/2023 espediente-zenbakiarekin.

## **I. AURREKARIAK**

1.- Aurrekoa.

C.A.T. jna. —kausatzailea— 2017ko urtarrilaren 6an hil zen; 1998ko uztailaren 8az geroztik egoitza fiskala Gasteizen zuen aitortua, eta ekitaldi horietan PFEZgatik eta ondarearen gaineko zergagatik tributatu zuen AFAREN aurrean.

Haren heriotza zela eta, CATJek 2018ko martxoaren 6an oinordetzen gaineko zerga likidatu zuten AFaren aurrean.

2021eko ekainaren 9an, Asturiasko Printzerriak jakinarazi zuen OGZri zegokion ikuskapen-prozedura bat hasi zuela.

Asturiasko Printzerriak 2021eko abuztuaren 19an inhibizio-errekerimendua jakinarazi zion AFari, eta hil bereko 11n txostena aurkeztu zuen —zeinaren arabera kausatzailea Asturiasen bizi izan baitzen heriotzaren aurreko 5 urteetan—, eta kudeaketa-espedientea eta oinordetzaren ondoriozko errendimendua eskatu zituen.

Asturiasko Printzerriak ez du inoiz kausatzailearen egoitza fiskala aldatzeko prozedurarik hasi, eta ez du AFari ordaindutako PFEZ erreklamatu.

2.- 73/2021 gatazka.

Hilabeteko epean erantzunik eman ez zenez, Asturiasko Printzerriak 73/2021 eskumen-gatazka planteatu zuen 2021eko urriaren 14an, aipatutako OGZk ordainarazteko eskumenari dagokiona.

AFAk 2021eko urriaren 8an erantzun zuen idatziz, eta uko egin zion inhibizio-errekerimenduari, uste baitzuen ez zegoela egiaztatuta heriotzaren aurreko urtean kausatzailea Asturiasen bizi izan zenik.

Hala ere, hasierako alegazioen ondorengo izapidean, AFAk amore eman zuen Asturiasko Printzerriaren asmoaren aurrean, nahiz eta ez jakin bere eskumenak inbaditu ote ziren, Printzerriak OGZri zegokion ikuskapen-prozedura bat hasia baitzuen.

Ondorioz, Arbitraje Batzordeak 36/2022 Ebazpena eman zuen 2022ko uztailaren 28an, eta prozedura artxibatzea erabaki. Hala ere, berariaz ebatzi gabe geratu ziren amore-ematerik izan ez balitz prozeduraren xede izango ziren bere eskumeneko alderdi hauek:

a.- Asturiasko Printzerriak jarraitutako prozedura zuzena izan ote zen, edo, OGZ ordainarazi aurretik, kausatzailearen egoitza fiskala aldatzea sustatu behar ote zukeen.

b.- Benetan jarraitutako prozedurak AFaren eskumenak inbaditzen ote dituen, AFaren Ekonomia Itunaren 66.Hiru artikulua eta 1760/2007 Errege Dekretuaren 15.2 artikulua urratzeagatik.

Azpimarratu behar da bi alderdi horien artean ez dagoela kausatzailearen heriotzaren aurreko urteko egoitza fiskala Asturiasen edo Araban ote zegoen ebaztea; horren arrazoia da adierazi den bezala ez dela inoiz izapidetu egoitza aldatzeko prozedurarik.

Zergapekoari prozeduran parte hartzeko aukerarik eman gabe eman zen 36/2022 Ebazpena, eta, beraz, ez du inola ere gauza epaituaren ondoriorik sortzen haren aurrean.

*A priori* egoitza fiskalari lotutako kontu bat zela pentsa litekeen arren, ezin da orokortu eta gisa horretako prozeduratzat jo 73/2021 gatazka; izan ere, ondoren azalduko diren beste arrazoi batzuen artean, Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikuluan zehazten den 4 hilabeteko epea itxaron gabe planteatu zen.

3.- Egiatzen-prozedura eta 17/2023 betearazpen-intzidentea.

Asturiasko Printzerriak 2022ko abuztuaren 16an jarraitu zuen egiaztapen-prozedura, harik eta 2023ko martxoaren 28an CATJekiko desadostasun-aktak egiten hasi zen arte; akta horiek 2023ko apirilaren 24ko likidazioen bidez berretsi ziren.

CATJek 17/2023 betearazpen-intzidentea planteatu zuten 2023ko apirilaren 17an —beraz, desadostasun-aktak berresteko likidazioak eman aurretik—, Asturiasko Printzerriak 36/2022 Ebazpena betearazi zuen moduari zegokiona. CATJek uste zuten 2021eko ekainaren 15ean hasitako jakinarazpenaren erabateko deuseztasuna deklaratu behar zatekeela, AFaren eskumenak inbaditzeagatik.

CATJek 2023ko maiatzaren 26an ordaindu zuten zorra (G.A.G. jaunak izan ezik, zeinari dagokionez egiaztatzeko eskubidea preskribatu baitzen), baina birjarpen-errekurtoa jarri zuten likidazio-akordioen aurka.

Arbitraje Batzordeak 2023ko ekainaren 1ean ezetsi egin zuen auzi-jartzailearen asmoa; izan ere, ebazpenak artxibatzea erabaki besterik ez zuen egiten, eta, ondorioz, asmo hori agortu egiten zen bere baitan. Hala ere, 65/2023 Ebazpenean, *obiter dicta* adierazi zuen ezen, Arbitraje Batzordearen 11/2018 eta 12/2018 Ebazpenen arabera (Auzitegi Gorenaren 2019ko uztailaren 10eko (ECLI:ES:TS:2019:2350) eta 2019ko urriaren 16ko (ECLI:ES:TS:2019:3250) epaiek berretsitakoak), Asturiasko Printzerriko ikuskapen-prozedura hasteko jakinarazpena erabat deuseza zela, AFaren eskumenak inbaditu baitzuten.

4.- 2023ko uztailaren 26an, Printzerriak CATJei jakinarazi zien hasiera eman zitzaiela tributuo-arloko arau-hauste larriagatik zehapen-espedienteei, eta berraztertze-errekurto berak jarri zituen.

5.- 2023ko abuztuaren 23an, Printzerriak likidazioen aurkako berraztertze-errekursoen ezespena jakinarazi zuen.

6.- 2023ko urriaren 18an, CATJek AFari eskatu zioten oinordetzen gaineko zergagatik ordaindutako zenbatekoak itzultzeko, bi Administrazioek zergapetzea ezinezkoa zela argudiatuta.

2023ko azaroaren 6an, AFAk eskatutako itzulketak ezestea erabaki zuen; izan ere, kausatzailearen egoitza-aldaketa (CATJen OGZrekiko ikuskapen-eskumenaren lotune erabakigarria) sustatu ez zenez, ulertzen zuen Asturiasko Printzerriaren hasierako jakinarazpena erabat deuseza zela, haren eskumenak inbaditzeagatik.

7.- 2023ko azaroaren 27an, Asturiasko Printzerriak CATJei jakinarazi zizkien tributu-arloko arau-hauste larriagatik zehapena ezartzeko erabakiak.

8.- 2023ko abenduaren 1ean, CATJek eskumen-gatazka negatiboa aurkeztu zuten, eta gatazka hori 162/2023 espediente-zenbakiarekin izapidetu da.

## **II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

1.1.- Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera, artikulua horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

## 1.2.- Gatazka negatiboari buruz.

Arbitraje Batzordeak zenbait ebazpenetan adierazi du (besteak beste, 14/2009 gatazkan emandako 8/2022 Ebazpenean) gatazka negatiboa zergapekoak planteatzen duena dela, bai zergapekoari ordainarazteko bi Administrazioek beren burua eskuduntzat jotzen badute, bai eskumenik gabekotzat jotzen badute.

Horretarako, ebazpen horren funtsa errepikatzen da:

«1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren (aurrerantzean, EIABA) 13.1 artikulua gatazka positiboak arautzen ditu, eta xedatzen duenez, gatazka horiek dira administrazio batek planteatzen dituenak, dela bere burua eskuduntzat jotzen duelako eta bestea bere eskumena urratzen ari dela ulertzen duelako (kasu horretan, inhibizio-errekerimendua egin beharko da alde zuzenetik), dela bere burua eskumenik gabekotzat jotzen duelako eta besteak bere eskumena bere gain hartu beharko lukeela ulertzen duelako

(kasu horretan, eskumenik ezaren deklarazioa egin beharko da alde zurretik).

EIABaren 13.3 artikulua gatazka negatiboa arautzen du, eta, xedatzen duenez, zergapeko batek aurkezten duena da gatazka hori. Administrazio bakar batek ere bere burua eskuduntzat jotzen ez duenean, EIABaren hitzez hitzeko idazketak planteamendu hori egiteko aukera ematen du. Kasu horretan, planteamendu negatiboa egiteko aukera ematen du, gatazka positiboa aurkezteko epea (hilabete bat) administrazio bakar batek ere horrelakorik sustatu gabe amaitu eta hilabete epean. Hala ere, gatazka positiboa planteatzeko beharrezkoa da alde zurretik administrazio batek eskumenik ez duela deklarazioa, bestearen alde, eta azken horrek ez onartzea, berariaz edo isilbidez (hilabete igaro delako); beraz, badirudi ezin izango litzatekeela gatazka negatiborik sortu alde zurretik eskumenik eza deklaratu ezean.

Hitzez hitzeko interpretazio hori bateraezina da interpretazio finalista batekin; izan ere, interpretazio horren bidez saihestu nahi da, dagozkion prozedura-bide guztiak erabiliz, administrazioen justifikaziorik gabeko jarduketarik ezak, beren eskumenik ezean eta, aldi berean, kontrako alderdiaren eskumenean sustatutakoak, zergapekoari babes judizial eraginkorrerako eskubidea kentzea (Auzitegi Gorenaren egoitzan), alde batetik, Arbitraje Batzordeak eskumena zehazteko eskumen eksklusiboa eta baztertzaila duela kontuan hartuta, eta, bestetik, administrazio-bidera jotzeko obligazioa, kasu honetan eskumen-gatazka bat sustatuz, administrazioarekiko auzietarako errekurtsioa jartzeko.

Horrela, posible da gatazka negatibo bat planteatzea bi administrazioek beren eskumena ukatzeko likidazio-akordio soil batekin, nahiz eta batek ere ez duen adierazi eskumenik ez duela, bestearen alde.

Era berean, posible da gatazka negatibo bat planteatzea bi administrazioek beren burua eskuduntzat jotzen dutenean, eta normalean biek zergapekoaren aurrean jarduten dutenean, baina batek ere ez duenean gatazka positiborik sustatzen».

1.3.- Kasu honetan, zergapeko batek planteatutako gatazka negatibo bat dugu, zeinari buruz bi administrazioek uste baitute eskumena dutela OGZ ordainarazteko eta Arbitraje Batzordeak ez baitu aldez aurretik ebazpenik eman jarraitutako prozeduraren zuzentasunari buruz, ez eta administratuaren aurrean gauza epaituaren ondorioak sortzen dituen ordainarazpen-eskumenari buruz ere; beraz, bidezkoa da gatazka negatibo horren berri izatea.

Hala, Arbitraje Batzorde honek eskumena du jakiteko —zergapekoaren eta administrazioen gaineko ondoreekin— Asturiasko Printzerriak jarraitutako prozedura zuzena den, ala, aitzitik, AFAREN eskumenen inbasioa den, eta, beraz, eskubide osoz deuseza.

Hala ere, honako hau Arbitraje Batzordearen eskumenetik kanpo geratzen da (soilik administrazioen arteko ondorioak dituelako): erabakitzea ea AFak Asturiasko Printzerriari funts sorta bidaltzea uka diezaiokeen —aldez aurretik amore ematearen aurka eginez—, bere garaian ezagutzen ez zen jarduketan deuseztasunean babestuta.

Arbitraje Batzordeak ere ezin du ebatzi zein Administrazioari dagokion DGZ ordainarazteko eskumena; izan ere, ez da planteatu kausatzailearen egoitza fiskalari buruzko gatazkarik.

3.- Aplikatu beharreko araudia: Ekonomia Ituna 22/2009 Legearen aurrean.

36/2022 Ebazpenaz geroztik —Asturiasko Printzerriaren adostasunez irmo bihurtua—, Arbitraje Batzorde honek jasota utzi du gatazka hau ebazteko



Ekonomia Itunaren eta Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren (1760/2007 Errege Dekretua) lotuneak eta prozedura-arauak aplikatu behar direla, eta ez araubide erkideko autonomia-erkidegoen finantzaketa-sistema arautzen duen araudia.

lido horretan, aipatu behar da Ekonomia Itunaren 66.Hiru artikulua (ez du parekorik 8/1980 Lege Organikoak onartutako AEFLOn, ezta araubide erkideko autonomia-erkidegoen finantzaketa-sistema arautzen duen 22/2009 Legean ere) hau ezartzen du:

«Eskumen-gatazka dagoenean, harik eta ebazten den arte, kasuan kasuko zergadunak kargatzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Horrelakoak Arbitraje Batzordearen erabakiaren arabera tributu-foru berria erabili behar den egunera atzera eraginez eramango dira».

Zentzu berean, honela dio 1760/2007 Errege Dekretuak onetsitako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiaren (EIABA) 15.2 artikulua:

«Harik eta eskumen-gatazka ebazten ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu-arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Bestalde, administrazio horien jarduketak, ondoreetarako, administrazio eskudun berriak Arbitraje Batzordearen arabera jatorria duen datara atzeratu beharko dira».

EIABaren manu horrek ez du parekorik 2541/1998 Errege Dekretuan, zeinak arautzen baitu araubide erkideko Arbitraje Batzordeen erregelamendua.

Artikulu horiek funtsezkoak dira. Izan ere, Ekonomia Itunaren 66. artikulua eta EIABaren 15.2 artikulua kontuan hartuta, administrazio batek ezin izango du zerga bat likidatzeko egiaztapen-jarduerarik egin, baldin eta aldez aurretik lortzen ez badu egiaztapen- eta ordainarazpen-eskumena zehazten duen lotunearen gaineko eskumenik.

4.- Kausatzailearen egoitza fiskalari buruzko gatazkarik ez da inoiz planteatu.

36/2022 Ebazpenak oker adierazi zuen Asturiasko Printzerriak planteatutako gatazkak ukitzen zituela kausatzailearen egoitza fiskala eta CATJen oinordetzen gaineko zergaren ordainarazpen-eskumena.

Hain zuzen ere, Asturiasko Printzerriaren inhibizio-errekerimenduak AFari eskatzen zion «berriro bidaltzeko kudeaketa-espedita eta aipatutako ondorengotzak sortutako etekina». Inoiz ez zen eskatu kausatzailearen egoitza fiskala Asturiasen zegoela onartu zedila. Beraz, kontuan hartuta inhibizio-errekerimendua ezinbesteko baldintza dela geroago gatazka planteatzeko, ulertu behar da gatazkaren gaia kausatzailearen DGZ ordainarazteko eskumena baino ez zela izan.

Are gehiago, interpretazioa zabalduz ulertuko balitz inhibizio-errekerimenduak kausatzailearen egoitza fiskala ukitzen zuela, ezin izango zen gatazka planteatu berariazko erantzuna jaso edo isilbidezko berrespeneko 4 hilabeteko epea bete baino lehen.

Kasu horretan, erantzunik ezaren aurrean, hilabeteko epean planteatu zen gatazka. Horren emaitza da isilbidez berretsi egiten dela AFAk oinordetzen gainera zerga ordainarazteko duen eskumena.

Gainera, Asturiasko Printzerriak berretsi du, CATJen likidazioen aurkako berraztertze-errekurtsoaren ebazpenean, arrazoi honengatik ez zuela egoitza fiskala aldatzeko prozedurarik hasi: pertsona fisikoak direnez, ez delako beharrezkoa DGZren ordainarazpen-eskumena baliatzeko.

#### 5.- Arbitraje Batzordearen 11/2018 eta 12/2018 Ebazpenak.

11/2018 eta 12/2018 Ebazpenek jada zehaztu zuten ezin daitekeela sozietate baten gainera egiaztapen-jarduketa «betearazlerik» egin, horretarako eskumena aldeaz aurretik lortu gabe, eta hark aitortutako lotunea aldatuta. Egiaztapen-jarduketa betearazlea honako honi kontrajartzen zaio: hasteko jakinarazpena, gatazka aurkeztu dela zergapekoari jakinaraztearen ordean egiten dena soilik, eta tributua egiaztatzearen eskubidearen preskripzioa eteten duena.

Zehazki, hau zioen 42/2012 gatazkan emandako 11/2018 Ebazpenak:

«Baina, egoitza fiskalari buruzko gatazkarik planteatu ezean, ez dago legean babesterik administrazio baten ekintza hau: egoitza ordura arte beste administrazio baten eremuan zuen zergapeko bati buruzko preskripzioa etetea. Zerga-administrazioek eskubide legitimoa dute egoitza-aldaketako prozesuak denboran luzatzeak administrazioaren egiaztapen-ahalmena kalte dezan eragozteko —egin beharreko likidazioak egiteko eskubidea preskribatzeko arriskuari aurrea hartuz—, baina, era berean, zergapekoek ere eskubidea dute eguneroko jardunean jasan behar ez izateko eskumenik ez duten administrazioen jarduketarik».

Bestalde, hala dio 2/2013 gatazkan emandako 12/2018 Ebazpenak:

«Ezin dira onartu arrazoi honengatik: administrazioen artean egoitza aldatzeko prozedura beren-beregi araututa dago Ekonomia Itunaren 43. artikuluan, eta, 66. artikuluan, berriz, desadostasunik egonez gero egin beharrekoa arautzen da. Artikulu horietan ez da inola ere xedatzen egoitza-aldaketaren espedientea osatu baino lehen edo, kasuan kasu, desadostasunik egonez gero, gatazka ebatzi baino lehen, zergapekoari ordura arte likidaziorik egin ez dion administrazio batek jarduketaren bat egin ahal izatea; zerbait egin ahal izatekotan, gatazka planteatu izana jakinarazi ahal dio, halakorik planteatuz gero, eta hori 66.2 artikuluan xedatzen da».

Ebazpenok Auzitegi Gorenean errekurritu ziren, eta hark Batzordearen irizpidea berretsi zuen, 2019ko uztailaren 10eko Epaiaren (ECLI:ES:TS:2019:2350) eta 2019ko urriaren 16ko Epaiaren bidez (ECLI:ES:TS:2019:3250).

Zehazki, Auzitegi Gorenaren 3250/2019 Epaiak honako hau ezartzen du:

*«Kasu honetan, aztertu dugun arauditik argi ondoriozta dezakegu Arbitraje Batzordearen ebazpena juridikoki zuzena dela, Estatuko administrazioa ez baitzen mugatu egoitza fiskalari buruzko gatazka interesdunari jakinarazi, eta, horrekin, sozietateen gaineko zergaren preskripzioa etetera: hainbat errekerimendu egin zizkion interesdunari, eta, bete ez zituenez, zigorra ezarri zioten; gero, Madrilgo Justizia Auzitegi Gorenak zigorra baliogabetu zuen. Sekzio berak, antzeko auzi batean, ezetsi egin zuen errekurtoa; zehazki, 410/2018 Errekurtsoari emandako 1031/2019 Epaian. Kasu hartan, baina, zergaren subjektu pasiboa zen kexagilea, eta hark eskatu zuen sala honek izapide-egintzatzat jo zituen jarduketak baliogabetzea. Hemen, kontua ez da Estatuko administrazioak egindako*

*egiaztapen- eta ikerketa-jarduketak baliozkoak diren ala ez, baizik eta Arbitraje Batzordeak adierazi duela Estatuko Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenak inbaditu dituela, egoitza fiskala Euskal Autonomia Erkidegoan zeukan zergadun baten inguruan jarduten jarraitu baitu, Estatuko administrazioak batzorde horretan planteatutako gatazka (egoitzari buruzkoa) ebatzi aurretik; hortaz, ezetsi egin behar dugu Estatuko abokatuak jarritako errekurtsoa».*

6.- Asturiasko Printzerriaren jarrera.

6.1.- Jarraitutako prozeduraren zuzenketa.

2023ko apirilaren 24ko likidazio-akordioetan, Asturiasko Printzerriak uste du zorrotz jarraitu diola legez ezarritako prozedurari. Izan ere, AFARI inhibitzeko eskatu dio; eskumen-gatazka planteatu du, AFAK isilbidez bere eskumena berretsi ondoren; eta 36/2022 Ebazpena bete du —ebazpen horrek jarduketak artxibatzea erabaki zuen, eta, beraz, bere ikuskapen-prozedurarekin jarraitzeko gaitasuna eman zion—.

6.2.- Egoitza fiskala eta ohiko bizilekua.

Asturiasko Printzerriaren ustez, lotunea ez da «egoitza fiskala», «ohiko bizilekua» baizik. Hala, Asturiasko Printzerriaren ustez, Arbitraje Batzordea gauzak nahasten ari da 11/2018 eta 12/2018 ebazpenak aipatzean; izan ere, biak pertsona juridikoei buruzkoak dira, zeinetan egoitza fiskala baita lotunea.

Asturiasko Printzerriaren ustez, kontu faktikoa da ohiko bizilekua, automatikoki zehazten baitu kausatzailearen DGZrekiko ordainarazpen-eskumena. Ondorioz, haren ustez, kausadunen gaineko ordainarazpen-eskumena lortzeko ez da

beharrezkoa alde zurretik kausatzailearen egoitza fiskala aldatzeko prozedura bat martxan jartzea.

Asturiasko Printzerriak, bere jarrera berresteko, epai hauek aurkeztu ditu: Asturiasko Auzitegi Nagusiaren 2018ko urriaren 29koa (ECLI:ES:TSJAS:2018:3361) eta 2022ko otsailaren 14koa (ECLI:ES:TSJAS:2022:502), eta Auzitegi Gorenaren 2024ko apirilaren 15koa (ECLI:ES:TS:2024:2013).

6.3.- Ikuskapen-prozedura hasteko jakinarazpenaren deuseztagarritasunari buruz.

Asturiasko Printzerriak likidazioen aurkako berraztertze-errekurtoaren ebazpenean adierazten duenez, hasteko jakinarazpen-oharraren amaieran honako hau idatzita zegoen: «baldin eta oinordetzen gainera zergaren aitortpena aurkeztua badago, nahikoa izango da aitortpenaren egiaztagiria eta oinordetzaren likidazio-agiriak aurkeztea».

Ondorioz, ez da jardura betearazlea, preskripzioa eteteko baizik, arbitrajegatatzaren emaitzaren mende.

Horrez gain, bere ustez, kausatzailea Asturiasen bizi zela adierazten zuen espedientearen ondoriozko berrestea ez da eskumenik eza nabarmen bat, erabateko deuseztasuna dakarrena, baizik eta preskripzioa etete bidez deusezteko ahala dakarrena.

7.- Asturiasko Printzerriaren jarrerari buruzko gogoetak.

7.1.- Jarraitutako prozedurari buruz.

Arbitraje Batzorde honek 11/2018 eta 12/2018 Ebazpenetan —Auzitegi Gorenak 2019ko uztailaren 10ean (ECLI:ES:TS:2019:2350) eta 2019ko urriaren 16an (ECLI:ES:TS:2019:3250) berretsiak— adierazi zuenez, zergapeko bati buruzko jarduera betearazleak egin aurretik, horretarako eskumena lortu behar da, egoitza fiskala aldatzeko prozedura bat sustatuz, egoitza hori eskumenaren lotune erabakigarria denean. Hori dena, Ekonomia Itunaren 66.Hiru artikulua eta 1760/2007 Errege Dekretuaren 15.2 artikulua araututako zuhurtasuna gordetzearren.

Jarrera hori bera berretsi zen geroko beste ebazpen batzuetan, hala nola 8/2021, 10/2022, 64/2023 eta 117/2023 ebazpenetan, eta bereziki 33/2023 Ebazpenean, zeina berretsi egin baitu Auzitegi Gorenaren 2024ko ekainaren 22ko Epaiak (ECLI:ES:TS:2024:3338).

## 7.2.- Egoitza fiskalari eta ohiko bizilekuari buruz.

Aldez aurretik adierazi behar da Asturiasko Printzerriak ez diola inoiz jarraitu 43. Ekonomia Itunaren espedienteari, kausatzailearen egoitza fiskalaren aldaketa sustatzeko.

Zenbait epaik bereizi egiten dituzte egoitza fiskala, hau da, zergapekoa Zerga Administrazioarekiko harremanetan kokatzeko lekua (Tributuen Lege Orokorreko 48. artikulua zentzuan), eta ohiko bizilekua, hau da, tributu pertsonalen lotunea. Hala ere, egoitza fiskala zerga pertsonalen lotunetzat ere har daiteke, eta lotune hori alderdi faktikoa da (Arbitraje Batzorde honek behin eta berriz adierazi duen moduan), pertsona fisiko zein juridikoentzat balio duena.

Kasurik argiena BEZa ordainarazteko eskumenaren ituntzea izan daiteke. Izan ere, haren subjektu pasibo asko pertsona fisikoak dira, zeinek, aurreko urtean

10.000.000 euroko eragiketa-bolumena gainditu ez badute, soilik beren «egoitza fiskal»ari dagokion administrazioari ordaintzen baitiote zerga.

Horregatik, Ekonomia Itunaren 43.Lau.a) artikulua adierazten duenez, pertsona fisikoek ohiko bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan dutenean, ulertuko da egoitza fiskala ere EAEn bertan dutela (eta hori izango da PFEZko, ondarearen gaineko zergako, DGZko, BEZeko eta abarreko eskumenetan lotune erabakigarria).

Ondorioz, Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikulua zergadunaren egoitza aldatzeko prozedura arautzen duenean —zeina hasiera batean administrazioen arteko akordioaren bidez egituratzen baita, eta, subsidiarioki (desadostasun-kasuetan), Arbitraje Batzordearen ebazpenaren bidez—, pertsona fisikoei zein juridikoei buruz ari da.

Aurreikuspen hori EIABaren 11.d) artikuluan garatzen da. Artikulu horrek adierazten duenez, foru-aldundiek gatazka bultzatu ahal izango dute «baldin eta, Ekonomia Itunean bildutako arauak aplikatzean, zergapeko batek uste badu bere egoitza fiskala foru-lurraldean edo lurralde erkidean duela eta Estatuko edo autonomia-erkidego bateko administrazioa ados ez dagoenean».

Horrek esan nahi du, gainera, egoitza aldatzeko administrazio arteko prozedura akordioarekin amaitzen bada, zergapekoaren egoitza aldatzeko prozedurari jarraitu beharko zaiola; hain zuzen, TLOn edo Foru Zerga Arau Orokorrean —kasuan kasu dagokiona— araututa dagoena.

Aitzitik, 2451/1998 Errege Dekretuaren 9.3.a) artikulua arabera (kasu honetan ez da aplikagarria, Ekonomia Ituna eta EIABA aplikatu behar baitziren), edozein autonomia-erkidegotako zerga-administrazioak, gaian eskumena duen organoaren bitartez, gatazkak bultzatu ahal izango ditu honako kasu hauetan: a)



Uste duenean, lagatako tributuen lotuneak aplikatzearen ondorioz, subjektu pasiboak beste autonomia-erkidego bateko edo Estatuko zerga-administrazioan aitortutako, eta, kasua bada, sartutako tributu jakin baten etekina dagokiola, edo, bestela, administrazio horietako edozeinek aitortzeko edo sartzeko eskatu badio subjektu pasibo horri.

Beraz, araudi erkidea eta Ekonomia Itunaren sistemari aplikatu beharreko araudia alderatzen baditugu, badirudi araubide erkideko autonomia-erkidegoen arteko gatazketan ez litzatekeela beharrezkoa izango, egoitza fiskalaren lotune-zereginaren xede diren tributuen gaineko eskumena lortzeko, aldez aurretik egoitza fiskal horren gaineko eskumena lortzea. Aitzitik, hala da, horrela ezarrita geratu baita araubide erkideko autonomia-erkidego baten eta foru-aldundi baten arteko gatazketan.

### 7.3.- Asturiasko Printzerriak aurkeztutako epaiei buruz.

Asturiasko Printzerriak emandako epaiek ez dute aurreko ondorioa ahultzen, kasu desberdinei buruzkoak baitira.

Hain zuzen ere, Asturiasko Auzitegi Nagusiaren 2018ko urriaren 29ko Epaia (ECLI:ES:TSJAS:2018:3361) eragin zuen kasuko inguruabar faktikoak erabat desberdinak dira C.A.T. jaunaren kasuan gertatzen direnekiko. Hartan, kausatzaileak egoitza fiskala Asturiasen zuen, eta, egoitza fiskala aldatzeko jakinarazpenik eta aldaketarik egin gabe, Madrilen erroldatu zen. Beraz, kasu horretan, ohiko bizilekua eta egoitza fiskala Asturiasen zeuden, eta, beraz, ez zen legez beharrezkoa egoitza fiskala aldatzeko prozedura bat bideratzea DGZren ordainarazpen-eskumena lortzeko.

Asturiasko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2022ko otsailaren 14ko Epaia eragin zuen kasua ere (ECLI:ES:TSJAS:2022:502) ez dator bat kasu horrekin. Izan ere,

gatazkarik aurkeztu gabe, inhibizioa eskatu zitzaion administrazioak epez kanpo erantzun zuen, eta errekeritzailearen eskumena onartu zuen.

Azkenik, Auzitegi Gorenaren 2024ko apirilaren 15eko 2013/2024 Epaia dagokionez (ECLI:ES:TS:2024:2013), zeina Asturiasko Printzerriak ekarri baitu hizpidera, araubide komuneke bi autonomia-erkideren arteko desadostasun-kasu bat da, AEFLOren arabera ebatzia.

7.4.- Ikuskapen-prozedura hasi izanari buruzko komunikazioaren deuseztasunari buruz.

Azaldutakoaren arabera, kasu honetan ez da egoitza aldatzeko prozedurarik martxan jarri —Ekonomia Itunaren 43.Bederatzi artikulua arabera—, eta, beraz, ezin da baliozkotu, *a posteriori*, ikuskapen-prozedura hasi izanaren jakinarazpena, ulertzen baita ez dela ageriko eskumen-gabeziarik gertatu.

Hain zuzen, agerikoa da eskumenik eza (materiala eta lurraldekoa). Izan ere, kausatzailearen egoitza fiskalari buruzko desadostasuna ez da inoiz ebatzi gatazka honi aplikagarri zaion araudian aurreikusitako moduan, hau da, Ekonomia Itunaren arabera. Horrek, gainera, ezarritako prozedura-arauak nabarmen urratzea dakar, eta horrek ere erabateko deuseztasuna dakar.

Ildo horretan, gogorarazi behar da Auzitegi Gorenak, 11/2018 eta 12/2018 ebazpenak berrestean, berretsi egin zuela ezinezkoa zela eskumenik eza *a posteriori* baliozkotzea, Ekonomia Itunaren 66.Hiru artikulua eta 1760/2007 Errege Dekretuaren 15.2 artikulua urratzea baitakar horrek.

Azkenik, gogorarazi behar da 12/2018 Ebazpenak adierazi zuela egoitza fiskalari buruzko gatazkaren (kasu honetan planteatu gabea) geroagoko aldeko

ebazpenak ere ez zukeela zuzenduko hasi izanari buruzko komunikazioaren akatsa. Ildo horretan, ebazpen horrek honako hau adierazten du:

«Era berean, ez dugu onartu behar ZAEAREN eskaera, hau da, gatazka hau nahitaez TG SLren egoitza fiskalari buruz planteatuta dagoenaren ondoren ebatzi behar dela dioena.

«ZAEAK entitatearen aurrean egindako jarduketak BFAren eskumenak inbaditu zituen, aipatutako gatazkaren ebazpenean azaltzen den ondorioa edozein izanik ere; gainera, gatazka hori ebaztean onartuko balitz ere egoitza lurralde erkidean egon zela eratu zenetik, ez lirateke inola ere garbituko egindako hutsak, Ekonomia Itunaren 66.3 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera. Izan ere, artikulua horrek dioenez: “Eskumen-gatazka dagoenean, harik eta ebazten den arte, kasuan kasuko zergadunak kargatzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Horrelakoak Arbitraje Batzordearen erabakiaren arabera tributu-foru berria erabili behar den egunera atzera eraginez eramango dira”».

8.- Arbitraje Batzordearen jarreraren konfirmazioa, Auzitegi Gorenaren 2024ko ekainaren 20ko Epaiaren bidez (ECLI:ES:TS:2024:3338), zeinak berretsi egiten baitu 30/2016 gatazkan emandako 33/2023 Ebazpena, 2023ko martxoaren 22koa.

Kasu horretan, kausatzailea (pertsona fisikoa, argi dago) Kantabriari bizi zen, eta han aurkezten zituen PFEZren aitortpenak. Hala eta guztiz ere, CATJek Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean (aurrerantzean, BFA) aurkeztu zuten DGZren aitortpena. Zerga Administrazioari Kantabriako Agentziak (aurrerantzean, ACAT) horri zegokion funts sorta eskatu zion BFARI, eta hark ukatu egin zion; argudiatu

zuen kausatzailearen benetako egoitza fiskala, ohiko bizilekuaren arabera zehazten dena, Bizkaian egon zela zendu aurreko urtean.

30/2016 gatazka planteatu ondoren, Arbitraje Batzordeak, 33/2023 Ebazpenean, ACATi arrazoia ematea ebatzi zuen, honako argudio hauetan oinarrituta:

«2012ko otsailaren 28an zergapekoaren heriotza dela eta, zergapekoak hil aurreko urtean egoitza fiskala Bizkaian izan balu, 2011ko PFEZ aitortpena BFAn aurkeztu beharko zukeen.

BFAk ez zion 2011ko PFEZri zegozkion funtsak igortzeko eskatu ZAEARI (ulergarria da hori, ACATen inhibizio-errekerimendua 2016ko ekainaren 27an jakinarazi baitzen), eta, gainera, ez du sustatu zergapekoaren egoitza fiskala lurralde erkidetik foru-lurraldera aldatzea, Ekonomia Itunak eta EIABAK aurreikusitako moduan.

Arbitraje Batzordeak hainbat gatazkatan ebatzi duenez, administrazioek ezin dituzte egiaztapen-jarduketak hasi zerga bati dagokionez eta likidazioan amaitzeko helburuarekin, ez badute eskumenik zergapekoaren gainean (egoitza, eragiketa-bolumena eta abar direla eta).

Halaber, BFAk ezin du bere gain hartu J.A.S. jaunaren heriotzaren ondoriozko oinordetzen gaineko zergaren ordainarazpen-eskumena, baldin eta, aldez aurretik, haren jaraunspenaren gaineko eskumena lortzen ez badu, haren egoitza fiskala aldatuz —gutxienez 2011koa—; izan ere, eskumen horrek aitortpen horiek ikuskatzeko eskumena dakar berekin.

Hori guztia, kontuan hartu gabe hildakoaren egoitza fiskala foru-lurraldean edo lurralde erkidean ote zegoen, ez baita gatazka honen auzia (eta, ondorioz, ez dago ZAEAREN txostenik horri buruz)».

Auzitegi Gorenaren 2024ko ekainaren 20ko epaiak berretsi egin zuen Arbitraje Batzordearen ebazpen hori. Horrela, Sala bat dator aurkaratutako Arbitraje Batzordearen ebazpenarekin. Ebazpen horretan adierazten da, hildakoaren egoitza fiskala foru-lurraldean edo lurralde erkidean ote zegoen alde batera utzita, oinordetzen gaineko zerga ordainarazteko eskumena ACATi dagokiola, zuzenbidearekin bat datozen bi premisatan oinarrituta:

1.- «Lehenik eta behin, zergapekoak aitortutako egoitza fiskala Kantabrian zegoen 2003tik. Datu hori ez da eztabaidagarria».

2.- «Arbitraje Batzordeak ACATi zerga ordainarazteko eskumena duela adieraztera daraman bigarren argudioa da BFAk ez duela zergapekoaren egoitza fiskala lurralde erkidetik foru-lurraldera aldatzea sustatu, Ekonomia Itunean aurreikusitako moduan.

Hain zuzen ere, kontuan hartuta zergapekoak 2003. urteaz geroztik aitortutako egoitza fiskala lurralde erkidean zegoela eta han aurkezten zituela PFEZren aitortpenak, eta, esan bezala, han aurkezteak egoitza fiskalaren aldatetaren jakinarazpen gisa balio duela, argi dago BFAk ezin zuela bere gain hartu Carmelo jaunaren heriotzaren ondoriozko oinordetzen gaineko zergaren ordainarazpen-eskumena, baldin eta, aldeztu aurretik, haren jaraunspenaren gaineko eskumena lortzen ez bazuen, haren egoitza fiskala aldatuz —gutxienez 2011koa—; izan ere, eskumen horrek aitortpen horiek ikuskatzeko eskumena dakar berekin.

Ondorioz, Ekonomia Itunaren 25. eta 43. artikuluetan xedatutakoa kontuan hartuta, BFA ez bazegoen ados zergadunak aitortutako egoitza

fiskalarekin, egoitza hori lurralde erkidetik foru-lurraldera aldatzeko prozedura bat sustatu behar zukeen, Ekonomia Itunear eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudian (aurrerantzean, EIABA) aurreikusitako moduan, egin zuena egin ordez: oinordetzen gaineko zerga ordainarazteko eskumena bere gain hartu, aldeztatik Carmelo jaunaren egoitza fiskala aldatuz haren jaraunspenaren gaineko eskumena lortu gabe.

Arbitraje Batzordeak orain aurka egiten ari zaion ebazpenean adierazi duen bezala, BFAk bere kabuz hartu zuen Carmelo jaunaren heriotzaren ondoriozko oinordetzen gaineko zerga ordainarazteko eskumena, hark 2003az geroztik aitortutako egoitza fiskalaren aurka eginez eta zergapekoaren egoitza fiskala aldatzea sustatu gabe.

Arbitraje Batzordeak hainbat gatazkatan ebatzi duenez, administrazioek ezin dituzte egiaztapen-jarduketak hasi zerga bati dagokionez eta likidazioan amaitzeko helburuarekin, ez badute eskumenik (egoitza, eragiketa-bolumena eta abar direla-eta) zergapekoaren gainean. Ildo horretan, Arbitraje Batzordeak, errekurtsogileak aipatutako abenduaren 20ko 8/2021 Ebazpenean, honako hau adierazi zuen: «[...] ZAEAK ulertu izan balu zergapekoari ordainaraztea zegokiola, egoitza bat Bizkaian aitortu arren benetan lurralde erkidean zuelako egoitza, egoitza aldatzeko prozedura bat sustatu behar zukeen, zergapekoaren ordainarazpen-eskumena lortzeko, eta, horren ondorioz, BEZagatiko haren tributazio guztia erreklamatzeko.

Arbitraje Batzorde honek zenbait ebazpenetan ezarri du, 1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Erregelamenduaren 10. artikulua arabera, administrazio batek ezin duela bere gain hartu zergapeko baten ordainarazpen-eskumena, eta, hura erabiliz, «kudeaketa-jarduketak»

(terminoaren zentzu zabalean ulertuta) egin; aitzitik, lehenik, ordainarazteko eskumena lortu behar du, eta horretarako, hala badagokio, aldez aurretik zergapekoaren egoitza fiskalaren aldaketa sustatu behar du [...]».

Antzeko iritzia eman du martxoaren 25eko 10/2022 Ebazpenean, zeinean honako hau gogorarazten baita:

«[...] Arbitraje Batzordeak hainbat ebazpenetan adierazi du, adibidez 8/2021 Ebazpenean, administrazio batek ezin duela likidazio-jarduketarik egin ordainarazpen-eskumena bere buruari esleituz, zergapekoak aitortutako egoitzaren aurka, hura okerra dela irizten diolako; aitzitik, lehenik eta behin, eskumena eskuratu behar du, egoitza aldatzeko prozedura izapidetzearen bidez, eta, orduan bakarrik, geroago, egokitzen jotzen duen likidazio-jarduketa egin behar du.

Beraz, ZAEAk zergapekoaren egoitza fiskalaren aldaketa sustatu behar zukeen, baldin eta uste bazuen zergaldiko egun gehiago egon zela forulurraldean, eta, ordura arte, zergapekoak eskatutako itzulketa bere gain hartu behar zukeen, EIABEren 15.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Azken ebazpen horietatik erraz ondorioztatzen da, errekurtsogileak onartzen duen bezala, administrazio batek ezin duela bere kabuz bere gain hartu zergadun baten gaineko ordainarazpen-eskumena, zergadun horrek aitortutako egoitza fiskalaren aurka; aitzitik, derrigortua dago hori egin baino lehen Ekonomia Itunaren 43. artikulua Sei eta Bederatzi apartatuetan ezarritako egoitza aldatzeko prozedura betetzera. Gainera, zergapekoak definitzen du lehenik administrazio bakoitzaren eskumena, *“bere autolikidazioaren bidez eta lotuneak aitortuz (egoitza fiskala,*

*eragiketen bolumena eta eragiketen bolumenaren proportzioa)» [9/2023 Ebazpena, otsailaren 17koa].*

Doktrina hori behin eta berriz agertzen da eta aplikatu beharrekoa zaio aztertzen ari garen kasuari. Hori ezin da eragotzi pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena izan beharrean oinordetzen gaineko zergaren ordainarazpena izateagatik. Izan ere, lehenengo zerga horren ordainarazpena kausatzaileak sortzapen-datan ohiko bizilekua duen administrazioari dagokio, eta, ZAEAn aurkeztutako PFEZren aitortpenen arabera, lurralde erkidean zegoen (Kantabrian) ohiko etxebizitzan inbertitzeagatiko kenkaria aplikatzen zitzaion ohiko etxebizitza, eta, beraz, BFAk zergapekoaren egoitza fiskalaren aldaketa sustatu behar zukeen.

9.- 8/2021 eta 10/2022 Ebazpenak.

9.1.- 8/2021 Ebazpena, 22/2012 gatazkan emana.

Ebazpen hori ZAEAk eta BFAk ABEE baten gaineko ordainarazpen-eskumena zutela zioten gatazka batean eman zen. Hau dio: «ZAEAk ulertu izan balu zergapekoari ordainaraztea zegokiola, egoitza bat Bizkaian aitortu arren benetan lurralde erkidean zuelako egoitza, egoitza aldatzeko prozedura bat sustatu behar zukeen, zergapekoaren ordainarazpen-eskumena lortzeko, eta, horren ondorioz, BEZagatiko haren tributazio guztia erreklamatzeko. Arbitraje Batzorde honek zenbait ebazpenetan ezarri du, 1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Erregelamenduaren 10. artikulua arabera, administrazio batek ezin duela bere gain hartu zergapeko baten ordainarazpen-eskumena, eta, hura erabiliz, “kudeaketa-jarduketak” (terminoaren zentzu zabalean ulertuta) egin; aitzitik, lehenik, ordainarazteko eskumena lortu behar du, eta horretarako, hala badagokio, aldeztu aurretik zergapekoaren egoitza fiskalaren aldaketa sustatu behar du [...]».



Ebazpen hori irmoa izan zen, ez baitzizaion errekurtsorik jarri Auzitegi Gorenean, eta ulertu zen haren irizpidea onartu egin zutela gatazkan zeuden administrazioek.

9.2.- 10/2022 Ebazpena, 32/2016 gatazkan emana.

Ebazpen hori ZAEAREN eta BFAREN arteko gatazka batean eman zen; hain zuzen, eztabaidagaia zen pertsona fisiko baten PFEZ ordainarazteko eskumena nori zegokion. Hala dio: «Arbitraje Batzordeak hainbat ebazpenetan adierazi du, adibidez 8/2021 Ebazpenean, administrazio batek ezin duela likidazio-jarduketarik egin ordainarazpen-eskumena bere buruari esleituz, zergapekoak aitortutako egoitzaren aurka, hura okerra dela irizten diolako; aitzitik, lehenik eta behin, eskumena eskuratu behar du, egoitza aldatzeko prozedura izapidetzearen bidez, eta, orduan bakarrik, geroago, egokitzat jotzen duen likidazio-jarduketa egin behar du. Beraz, ZAEAK zergapekoaren egoitza fiskala aldatzea sustatu behar zukeen, baldin eta uste bazuen zergaldiko egun gehiago egon zela foru-lurraldean, eta ordura arte zergapekoak eskatutako itzulketa bere gain hartu behar zukeen, EIABEREN 15.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ebazpen hori irmoa izan zen, ez baitzizaion errekurtsorik jarri Auzitegi Gorenean, eta ulertu zen haren irizpidea onartu egin zutela gatazkan zeuden administrazioek.

10.- 64/2023 eta 117/2023 Ebazpenak.

3/2020 gatazkan emandako 64/2023 Ebazpenak honako hau adierazten du BFARI tributatu zion sozietate bati ZAEAK egindako ikuskapen-prozedura hasi izanaren jakinarazpenari buruz:

«Autolikidazio-sistemaren premisa da zergapekoak berak adierazi behar duela zein administraziok duen bera kudeatzeko eskumena (*kudeatu* terminoaren zentzu zabalean hartuta).

Horretarako, unean-unean eskatzen zaizkion aitortpenak hartzen dira kontuan (egoitza fiskala, eragiketa-bolumena eta abar).

Sistema horren arabera, administratuaren aitortpena ez da loteslea administrazio horrentzat, zeinak eskumena baitu autolikidazioetako datuak egiazkoak ote diren egiaztatzeko.

Halere, administrazioak ezin dezake aldebakartasunez eta zuzenean hartu eskumena, aurretik lortu egin behar baitu, «kudeatzeko» eskumenean erabakigarria den lotunea egiaztatzeko prozedura baten bidez (berriro ere, *kudeatu* terminoaren zentzu zabalean).

Ekonomia Itunean, prozedura kontraesankorren bidez egiten da hori, non eragindako beste administrazioa (zergapekoaren aitortpenaren arabera hasiera batean eskuduna zena) eta zergaduna bera parte baitira.

Beraz, Ekonomia Itunak xedapen bat jasotzen du, bi administraziok zergadun beraren gainean aldi berean jardun ez dezaten.

Hala, Ekonomia Itunaren 66.Hiru artikulua honako hau xedatzen du: «Eskumen-gatazka dagoenean, harik eta ebazten den arte, kasuan kasuko zergadunak kargatzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Horrelakoak Arbitraje Batzordearen erabakiaren arabera

tributu-foru berria erabili behar den egunera atzera eraginez eramango dira».

Zentzu berean, EIABAREN 15.2 artikulua honako hau xedatzen du: «Harik eta eskumen-gatazka ebatzen ez den arte, kasuan kasuko zergadunak zergapetzen aritu den administrazioak zergadunok bere eskumenaren pean edukitzen jarraituko du, alde batera utzita administrazioen artean egin behar diren tributu-arloko zuzenketa eta konpentsazioak. Administrazio horien jarduketak, bestalde, Arbitraje Batzordearen arabera, administrazio eskudun berriak jatorria duen datara atzeratu beharko ditu bere jarduerak, ondorioetarako».

Azpimarratu egin behar da bi kasuetan «eskumen-gatazka» aipatzen dela, egoitza fiskalari, eragiketa-bolumenari, eragiketa-bolumenaren proportzioari eta abarri dagokienez.

64/2023 Ebazpena irmoa izan zen ZAEAk errekurritu ez zuelako.

ZAEAk interpretatu zuen ikuskapen-prozedura hasi izanaren jakinarazpenaren akatsak haren deusezgarritasuna eragin zuela (eta, beraz, preskripzioa eten zuela). Horri erantzunez, 132/2023 eta 156/2023 betearazpen-intzidentek sortu ziren, eta haiei emandako 117/2023 Ebazpenak argitu zuen bi akats gertatu direla: eskumenik ez materiala eta lurraldearen gainekoa, batetik, eta ezarritako prozedura-arauen funtsezko urraketa bestetik; gainera, hain direla nabarmenak, larriak eta baldarrak, ezen, 64/2023 Ebazpenak adierazi bezala, erabateko deusaztasuna eragiten baitute.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

## ERABAKITZEN DU

1.- Adieraztea Asturiasko Printzerriaren jardunak AFaren eskumenak funtsean inbaditu dituela, eta, ondorioz, ezarritako prozedura-arauak funtsean urratu dituela, ez baitu eskumen materialik eta lurralde-eskumenik DGZren bidezko ikuskapen-prozedura garatzeko, CATJei dagokienez.

2.- Erabaki hau Arabako Foru Aldundiari, Asturiasko Printzerriari eta CATJei jakinaraztea.

Sin.: Violeta Ruiz Almendral.

Sin.: Sofía Arana Landín.

Sin.: Javier Muguruza Arrese.